



*Kultura, Kirola, Gazteria eta Euskara
Cultura, Deporte, Juventud y Euskera*

**DIRULAGUNTZA DEIALDIA,
2024-25 IKASTURTEAN
EUSKARA IKASTEN ARITU DIREN
MUSKIZKO HERRITARRENTZAKO**

**CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES
PARA EL APRENDIZAJE DE EUSKERA
POR PARTE DE LA CIUDADANÍA DE MUSKIZ
DURANTE EL CURSO 2024-25**

1. XEDEA

Deialdi honen helburua Muskizen erroladatutako pertsonen euskara ikasteko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

2. AURREKONTUA

Muskizko Udalak 7.000 euroko aurrekontua du horretarako.

Eskabideak baloratu ondoren deialdi honetako aurrekontua baino zenbateko handiagoa aterako balitz, zenbateko horren eta deialdiaren arabera erabilgarri dagoen zenbatekoaren arteko aldea modu proportzionalan kenduko da diruz lagundutakoen artean.

1. OBJETO

El objeto de la presente es regular las condiciones para otorgar ayudas para el aprendizaje del euskera exclusivamente para personas empadronadas en Muskiz.

2. PRESUPUESTO

El Ayuntamiento de Muskiz dispone de un presupuesto de 7.000 euros para este fin.

Si tras la valoración de las solicitudes resultase un importe superior al presupuesto de esta convocatoria, la diferencia resultante entre el importe obtenido y el importe disponible según la convocatoria se restará de manera proporcional entre las personas subvencionadas.

3. ONURADUNAK ETA BAZTERKETAK

a) Dirulaguntza jaso ahal izango dute eskabidea egitean Muskizen erroldatuta daudenek, baldin eta HABEk homologatutako euskaltegi publiko edo pribatuetan euskara ikasi badute, Muskizko AEKren euskaltegia eta Udal euskaltegia barne. Horrez gain, baldintza hauek bete behar dituzte:

a.1. Egunean egotea zuzenbide publikoko zerga-betebeharrekin, Gizarte Segurantzarekin eta Muskizko Udalaren zergekin.

a.2. Dirulaguntzak lortzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatzen diren debekuetatik bat ere ez izatea.

a.3. Sexu-bereizkeriagatik zigor administratibo edo penalik jasotakoa ez izatea, eta diruzko edo bestelako laguntzak jasotzeko deialdietara aurkezteko debekurik ez izatea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren arabera.

b) Enpresa edo erakundeek diruz laguntzen dituztenek eska ditzakete dirulaguntza horiek, baldin eta jasotako zenbateko osoak ez badu gainditzen matrikularen zenbatekoa.

c) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira 'a' atalean (Hizkuntza Eskola Ofiziala, akademiak, IRALE, IVAP edo lantokietako berariazko beste programa batzuk) jasota ez dauden beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan ikastaroak egiten dituztenak.

4. DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

a) Diruz lagundu ahal izango dira 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean egindako edozein iraupeneko ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegiak barne (barnetegietan matrikula-gastuak lagunduko dira diruz, baina inola ere ez egonaldi- eta joan-etorri-gastuak).

b) Ez da diruz lagunduko ikastetxeetako edo guraso-elkarteetako eskolaz kanpoko euskarazko jarduerarik.

3. PERSONAS BENEFICIARIAS Y EXCLUSIONES

a) *Podrán recibir subvención las personas empadronadas en Muskiz al hacer la solicitud, que hayan cursado estudios de euskera en euskaltegis públicos o privados homologados por HABE, incluidos el Euskaltegi Municipal y el Euskaltegi de AEK de Muskiz. Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:*

a.1. *Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias de derecho público, con la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Muskiz.*

a.2. *No hallarse incurso/a en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*

a.3. *No estar sancionado/a administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni estar incurso/a en prohibición de concurrir a convocatorias económicas o de ayudas en virtud del Texto Refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.*

b) *Las personas que son subvencionadas por empresas o instituciones podrán optar a estas subvenciones, siempre y cuando el importe total recibido no supere el importe de la matrícula.*

c) *Quedan excluidas de esta convocatoria las personas que realicen cursos en otros centros públicos o privados no recogidos en el apartado 'a' (Escuela Oficial de Idiomas, academias, IRALE, IVAP u otros programas específicos de centros de trabajo).*

4. CURSOS OBJETO DE SUBVENCIÓN

a) *Podrán ser subvencionados los cursos de cualquier duración, incluidos intensivos y barnetegis, realizados entre el 1 de septiembre de 2024 y el 31 de agosto de 2025 (en los barnetegis se subvencionarán los gastos de matrícula, en ningún caso los gastos de estancia, desplazamiento...).*

b) *No se subvencionarán actividades extraescolares de euskera de los centros educativos o de las AMPAs.*

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA, TOKIA ETA BALDINTZAK

a) Eskaera-orriak 2025eko urriaren 1etik 31ra aurkeztu ahalko dira.

b) Eskariak, eskatutako dokumentazioarekin batera, Udaleko Erregistro Nagusian (San Juan kalea, 1 – Muskiz; astelehenetik ostiralera, 9:00etatik eta 14:00etara) aurkeztu behar dira. Halaber, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira, Udalak horretarako dituen eskaera-orriak betez.

b.1. Epez kanpo aurkezten diren eskabideak ez dira onartuko, eta izapideak bertan amaituko dira. Hala adieraziko da deialdi honi dagozkion dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

b.2. Eskaerak aurkeztean, oso-osorik eta berariaz onartzen dira deialdi honetan eta Muskizko Udalak dirulaguntzak emateko Araudian adierazten diren baldintzak.

b.3. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo ez badaukarte nahitaezkoa den dokumentazioa, eskatzaileari eskatuko zaio hamar laneguneko epean okerra zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala ez egitera, eskaerari uko egin diola ulertuko dela. Uko-egite hori berariaz adieraziko da deialdi honi dagozkion dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpenean.

b.4. Muskizko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioak dituen parte-hartzaileen datuak direla-eta, datuok beharrezkoak direnean dirulaguntza honen izapidetze administratiborako. Horretarako, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa eta bestelako elkarreragingarritasun-zerbitzuak erabiliko ditu.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Udalak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

c) Diruz lagunduko dena adingabea balitz, guraso edo tutore batek egingo du eskaera.

5. PLAZO, LUGAR Y REQUISITOS PARA PRESENTAR LAS SOLICITUDES

a) *Se deberán presentar del 1 al 31 de octubre de 2025.*

b) *Las solicitudes, junto con toda la documentación, se deberán presentar en el SAC del Ayuntamiento de Muskiz (edificio de la Casa Consistorial, sito en la San Juan número 1, de lunes a viernes, de 9 a 14 horas) o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el ayuntamiento.*

b.1. *Las solicitudes presentadas fuera del plazo hábil serán desestimadas, sin más trámite, y así se indicará en la resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones a que se refiere esta convocatoria.*

b.2. *La presentación de solicitudes supone la aceptación íntegra y expresa de todas las condiciones contenidas en la presente convocatoria y en el Reglamento municipal de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Muskiz.*

b.3. *Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fuesen acompañadas de la documentación preceptiva, se requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de diez días hábiles subsane la falta o aporte los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su solicitud; desistimiento que se declarará expresamente en la resolución del procedimiento de concesión de las subvenciones a que se refiere la presente convocatoria.*

b.4. *El Ayuntamiento de Muskiz realizará las comprobaciones y consultas que estime oportunas respecto a los datos de las personas participantes en la Administración que sean necesarios para la tramitación administrativa de la presente subvención. Para ello utilizará el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia y otros servicios de interoperabilidad.*

Cuando por razones técnicas no sea posible recurrir a la interoperabilidad, el Ayuntamiento podrá requerir los datos o documentos que considere necesarios para su tramitación.

c) *Si la persona a subvencionar es menor de edad, la solicitud será realizada por un/a progenitor/a o tutor/a.*

6. AURKEZTU BEHARREKOAK

- a) NANaren kopia.
- b) Eskabide-eredu ofiziala behar bezala beteta. Eskuragarri egongo da Muskizko Udalaren web-orrian.
- c) Matrikularen ordainketaren edo ordainketen jatorrizko egiaztagiriak edo kopia konpultsatua.
- d) www.habe.euskadi.eus webgunetik jaso daitekeen **“Ikaslearen ibilbidea-oso”** agiria:
- e) Ikasketak egin diren HABEk homologatutako euskaltegiaren jatorrizko ziurtagiria, honako hauek zehaztuta:
 - e.1. Matrikula gisa ordaindutako zenbatekoak. Barnetegia denean, bereiztuta jaso beharko dira ikaskuntza-gastuak eta mantenu nahiz ostatu-gastuak.
 - e.2. Egindako matrikula eta jasotako eskolen epealdia zehaztuko da, hasiera eta amaiera datak zehaztuta.
 - e.3. Klasera joandako orduen ehunekoa, euskaltegiak emandako ordu-kopurua eta ikasleak jasotako orduak adierazita.
 - e.4. Egindako maila edo mailak, eta gainditu diren ala ez.
 - e.5. Ikastaro mota.

7. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

- a) Deialdi honen bidez ikasle bakoitzari gehienez 400 € emango zaizkio.
- b) Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa matrikularen % 80koa izango da.

8. IRIZPIDEAK, ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

- a) Ikasleak ez baditu ziurtagiriak epe barruan aurkezten, dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da.
- b) Dirulaguntzaren zenbatekoa eskabidean adierazitako kontu-zenbakian sartuko da.
- c) Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:
 - c.1. ‘Aurkeztu beharrekoak’ 6. atalean zehaztutako dokumentazioa behar bezala ziurtatzea.
 - c.2. Matrikula ordaindu izana.
 - c.3. Egindako ikastaroetan gutxienez % 80ko bertaratzea egiaztatzea. Autoikaskuntzako ikastaroak izatekotan, aprobetxamendu egokia ziurtatu beharko da.

6. DOCUMENTACIÓN REQUERIDA

- a) *Fotocopia del DNI.*
- b) *Instancia oficial debidamente cumplimentada. El modelo normalizado estará disponible en la web del Ayuntamiento de Muskiz.*
- c) *Justificantes originales del pago o pagos de la matrícula o copia compulsada.*
- d) Documento **“Historial alumno-todo”**, procedente de la web www.habe.euskadi.eus:
- e) *Certificado original del euskaltegi homologado por HABE en el que se haya estudiado, especificando:*
 - e.1. *Importes abonados en concepto de matrícula. Cuando se trate de un barnetegi, deberán recogerse separadamente los gastos de matrícula y los gastos de manutención y alojamiento.*
 - e.2. *Se especificará la matrícula realizada y el periodo de clases recibidas, con indicación de las fechas de inicio y finalización.*
 - e.3. *El porcentaje de asistencia a las clases. Se concretará el número de horas impartidas por el euskaltegi y las horas recibidas por la alumna o el alumno.*
 - e.4. *Nivel o niveles realizados, y si se han superado.*
 - e.5. *Tipo de curso.*

7. CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN

- a) *El importe máximo a otorgar a cada alumno/a por medio de esta convocatoria es de 400 €.*
- b) *La cantidad máxima de la subvención será el 80 % de la matrícula.*

8. CRITERIOS, PAGO Y JUSTIFICACIÓN

- a) *Si el alumno/a no presenta los certificados dentro de los plazos, se entenderá que renuncia a la subvención.*
- b) *El importe de la subvención se ingresará en el número de cuenta indicado en la solicitud.*
- c) *Requisitos de las personas solicitantes:*
 - c.1. *Certificar debidamente la documentación detallada en el apartado 6 ‘Documentación requerida’.*
 - c.2. *Haber abonado la matrícula.*
 - c.3. *Acreditar como mínimo una asistencia del 80 % en los cursos realizados. En el caso de cursos de autoaprendizaje, se deberá acreditar el aprovechamiento adecuado.*

- c.4. Dirulaguntzaren xede den mailak edo mailek irauten duten bitartean, baja ez izatea zentroko ikasle gisa.
- c.5. Helburu bereko bestelako dirulaguntzak badira (HABE...), gainfinantzaketarik ez izatea.
- c.6. Udalarekiko zerga-betebeharrak, Ogasunekoak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.

9. JUSTIFIKAZIOA

Ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

10. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

Eskabideak ebatzi ondoren, eskatzaile guztiak idatziz jakinaraziko ditu dagokion sailak, eta, ondoren, emandako zenbatekoak sartuko dira.

Dirulaguntza eman zaiola adierazten duen erabakia jaso eta hurrengo egunetik hasita, hamar laneguneko epean, Muskizko Udalari idatziz, dirulaguntzari uko egiten zaiola jakinarazi ezean, emandako dirulaguntza onartzen dela ulertuko da.

11. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

38/2003 Legearen II. tituluan eta bere garapen-araudian ezarritako kasuetako bat gertatzen denean, udal-diruzaintzari itzuli beharko zaio jasotako laguntza, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, alegia, dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egitea erabakitzen den egunera arte sortutakoak; eta hori guztia, titulu berean finkatutako prozedurari jarraiki.

Hona hemen arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezartzen duten xedapenak: batetik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Titulua, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea, bai eta bakoitzaren garapen-arauak eta legeria aplikagarria ere.

- c.4. *No causar baja como alumno/a del centro mientras dure el nivel o niveles objeto de subvención.*
- c.5. *No incurrir en sobrefinanciación cuando se trate de subvenciones para el mismo objeto (HABE...).*
- c.6. *Estar al corriente de las obligaciones tributarias municipales, de Hacienda y Seguridad Social.*

9. JUSTIFICACIÓN

El documento acreditativo de la realización del pago deberá presentarse junto con la solicitud de subvención.

10. NOTIFICACIÓN DE RESOLUCIONES

Tras la resolución de las solicitudes, todas las personas solicitantes serán notificadas por escrito por el departamento correspondiente, y posteriormente se ingresarán las cantidades otorgadas.

Se entenderá que las personas beneficiarias aceptan las subvenciones concedidas si en el plazo de diez días hábiles, desde el día siguiente a la fecha de notificación del acuerdo por el que se les conceden las subvenciones, no comunican al Ayuntamiento de Muskiz, por escrito, su renuncia a las subvenciones.

11. INFRACCIONES, SANCIONES Y REINTEGROS

Procederá el reintegro a las arcas municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos y de acuerdo con el procedimiento establecido en el Título II de la Ley 38/2003, así como en su respectiva normativa de desarrollo.

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y demás legislación que resulte aplicable.